

«JAUNGOIKO-TXIKI»

por Luis de JAUREGUI

Aurrekoengandik zetorkion izengoitia. Eztakit nondik eta nolaz asmatua ta ipiñia, baña, itxurazko arrazoen bat gabe izan izango. Orain irurogei ta bost urte Errenteri'n, pamili geienak ba-zuten beren izengoitia. Oien artean Jaungoiko-txiki oso ezaguna gendun, eta garai batean, ezaguna bezin bildur-garri.

Aitak bere burua il zuan zuaitz batetik zintzilik, munduan emazte ta semea lagata. Emazteak bizitzeko eskera jo bear izan zuan, eta semea —arteana mutil kozkorra—, etxean baño areago arkitu oi zan kalean. Etzuan laguntza aundirik arkitu, irri ta burla pranko, bai. Arritzekoa al-da, era orretan azitako mutilla, gerora, gaizkille ospetsu izateraño eldutzea?

Biurrikeri ta lapurreta txikiak, gaiztakeri aundiagotara bultzatu zuten; lotsa galdu zuan, biotza gogortu zitzaion, eta ezertxoren ajolarik gabe, edozein bidegabekeri egiteko lain jarri zan. Ala ere, Jaungoiko-txiki deitu oi zioten. Deabru-txiki ez ote zegokion egokiago?

Labaña luze-zorrotz bat beti berekin ibilli oi zuan izkutuan, eta etzuan bultzagai aundirik bear izaten agerian ipintzeko.

Oraindik oso gaztea zala, bere lankide batekin asarretu, ta au edo ori esan ziola, ta besterik gabe, sabeletik sartu

zian gizajoari. Arekin txantxetan aritzerik etzegon, noski. Errenteri'n guziok ezagutzen zuten, eta bildurrez eta kontuz itzegiten zioten.

Donostia'n ere, laister ezagutu zuten Jaungoiko-txiki nor zan.

Beñ, sagardotegi batean zegoala, gizon bat inguratzen zaio, ta ain arlote ikusirik, burlaka ta parrez asi zitzaion. Jaungoiko-txiki egon zan pizka batean ixillik, ta bestea ixiltzen etzitzaiola ikusirik, begietatik txinpartak zerizkiola esan zion:

—Alde egin zak emendik eta utzi nauk ni pakean; bestela, emen bertan garbituko aut.

—Ik..., ni garbitu..., arlote parragarri orrek?

Eta burlaka ta desapioka jarraitu zion; baña, ez luzaroan. Izkututik labaña atera ta iñork galazi ezinta, bularrean sartu zion eskumuturreraño. Sagardotegiko guziak txundituta gelditu ziran, eta bildurraren bildurrez iges-egiten laga zioten. Aren begietako dirdira bildurgarria, noski.

Errenteri'n atxitu zuten eta mikeleteak kartzelan sartu. Andik egun batzuetara, Ceuta'ra eraman eta giltzapean sartu zuten.

Izan zan egun artan Errenteri'ko etxe, sagardotegi ta ardo-tegietan makiña bat istori ta kontu; baita lasaitasun galanta ere.

Polikarpo'neko tabernan, orratik, etzeuden guziok lasai.

—Ori emendik urte batzuetara emen diagu berriro—, zioten alkarri. —Leen ere amaika aldiz eraman ditek, baña, auntzak larrera bezela, Jaungoiko-txiki'k bere txokora beti.

—Ez, oraingoan Ceuta'n urkatuko ditek, merezi dik-eta. Orain artean, gaztetxo zalako-edo, laister azkatu oi ziten; baña, orain soldadutako garaian zegok, eta ezin ume bat dala esan; urteetako itzalean egon bearra izango dik, beintzat.

—Noizpait itzultzen badek, galduak gaituk. Ori begiratua egin ziguk!

—Eta aztu al aiz bota digun desapiyuaz? Eztek gero az-tutzekoa...

Iru errenteriar ziran orrela mintzatzen ari ziranak. Jaungoiko-txiki, mikeleteak kartzelara lotuta zeramatela, aien aurretik igaro zan, eta burlaka esan zioten:

—I..., agur...! Ondo ibilli ta biaje on bat egin...!—, parra eta algara gozoa, pozez zeriota.

Jaungoiko-txiki aurrean gelditu zitzaian, eta ikaragarritzko begiratu zorrotza zuzenduaz, erantzun zien:

—Ba-zakiat zeintzuk zeraten... Itzultzen naizenean, ilko zaituztet, banan bana.

Etzitzaian parrez jarraitzeko gogorik gelditu.

Ceuta'n ere egin zuan egiteko ederra. Nondik edo andik, beste labaña luze bat, puñala esan oi dioten oietakoen bat, eskuratu ta gorde zuan, nun edo an; eta alako batean bakarrik arrapatzen du kartzelero bat, eta lepotik elduta, esaten dio:

—Ez gaituk, petzal orrek, geiago joko... To...!— Eta puñala biotzaren erdiraño sartu zion.

Garai artan, moruak Melilla'n España'ko soldaduen aurka jaiki ziran eta Jaungoiko-txiki beste preso batzuekin moruei kontra egitera eraman zuten, moruak ilko zutelakoan. Baña, zer egingo ta, bereak laga, ta moroetara pasa zan desertore. Ondo artu zuten moruak. Marruecos'en Muley Haffid agintariaren zerbitzari izatera iritxi zan. Mutil azkar ta zintzoa izan zitzaion, eta nagusiak asko maite zuan. Moruen soñekoz jatten zan. Mesede asko egin zizkien prisionero eroitzen ziran soldadu espaiarrei. Beñ baño geiagotan soldadu euskaldunekin arkitu oi zan, eta euskeraz itz-egiten zien. Argatik, «moro gipuzkoarra» deitu oi zioten.

Marruecos'eko gerratea bukatu zanean, prisioneruen trukea egin zan. Jaungoiko-txiki'k eriotza merezi zuan, desertorea bait-zan. Baña, Muley Haffid-ek kanjea egiterakoan, il etze-



El vendedor de "Bertso-Berriak"

Hace unos días recibí la visita de mi amigo Paul Tillac, el gran ilustrador vasco-francés, cuyos vigorosos dibujos aparecen durante una larga etapa en multitud de publicaciones referentes al País Vasco.

Tillac me mostró una colección de dibujos sobre tipos populares, tanto de un lado como del otro del Bidasoa. Yo me apresuré a adquirirle este aquí reproducido porque, aparte de su calidad artística, representa a un personaje muy conocido por nosotros. Es aquel vendedor de versos que, con voz gangosa los cantaba en las plazas de los pueblos vascos, generalmente después de la misa mayor. Le llamaban el *beso-motxa*, y con los muñones de sus brazos se las arreglaba debidamente para repartir las hojas y para recoger los *suses* que le daban.

Hará cosa de un par de años que tuve noticias de este hombre. Por entonces vivía aun, recogido en un hospital guipuzcoano.

En el fondo del dibujo se aprecia un clásico paisaje de aquella región, con su iglesia trinitaria tan bella y característica, tipo de construcción que se da solamente en una pequeña zona cercana a Cambó, el pueblo de Tillac.

AYALDE



Continuación de «Jaungoiko-Txiki»

zatela eskatu zualako, España'ko Gobernuak eriotzako zigorra barkatu ta Cartagena'ko presondegian sartu zuan.

Baifia, egun batean, Jaungoiko-txiki berriro Errenterín agertu zan. Amaika biotzetan bildurra sortu zan. Batez ere alako iru errenteriar aiek, bildurrez airean jarri ziran. Iruok bildu, ta zer egin bear zuten asmatzen aritu ziran. Ba-zakiten ondo arek bere itza beteko zuala.

—Itzultzen naizenean ilko zaituzten banan-bana—, esan zien.

Eta Jaungoiko-txikik etzuan bere itzik jango. Zer egin, bada? Salatu ta berriz kartzelatu? Eta berriro etorriko balitz? Alde batetik eta bestetik gauza artertuta, ongiena auxe egitea iruditu zitzairen. Diru mordoza bat pillatu zuten eta Jaungoiko-txiki'ri esan zioten:

—Diru au dana emango diagu, eta Amerike'tarako txartela ere bai.

Pozaren pozez erantzun zien:

—Konporme—. Eta Amerike-tara juan zan, ixilik eta pakean.

Era orretan Errenterí, Jaungoiko-txiki bildurgarriarengandik libratu zan.

Ameriketa'n beste gizon bat izan zan Jaungoiko-txiki. Lanean gogor jardun zuan eta aurrera beti ekin zion, azkenean diru-pilla ederraren jabe egiteraño.

Emen jarraitu izan bazuan, beti gaizkille bat besterik ez genduan izango. Baifio, beste lurralde aietan, beste gizarte bat arkitu zuan. Ètzuten iñork ezagutzen. Beste ainbat euskaldunen artean, lan egiñaz, zerbaiten jabe izateko egokitasuna ikusi zuan, eta bide orreri eldu zion. Eta asmatu zuan.

Orrela bukatu zan, zorionez, errenteriar gaizkille ospetsu baten kondairatxoa.

LUIS JAUREGI